

IRAGARKIA

45. ALDIZKARIA - 2010eko apirilaren 12a

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.7. BESTELAKOAK

426/2010 EBAZPENA, otsailaren 26koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, "Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Plana Udalez gaindiko Plan Sektorialari" (UPSri) buruz Ingurumen ondorioen adierazpena egiten duena. Iruñerriko Mankomunitateak sustatzen duen Plan horrek udal mugape hauek hartzen ditu barnean: Odieta, Olaibar, Ezkabarte, Esteribar, Eguesibar, Uharte, Aranguren, Noain (Elortzibar), Beriain, Galar Zendea, Zizur Zendea, Iruña, Zizur Handia, Barañain, Oltza, Etxauri, Ziritza, Zabaltza, Etxarri eta Bidaurreta.

2009ko otsailaren 20an, Iruñerriko Mankomunitateak "Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Udalez Gaindiko Plan Sektoriala (UPS)" eta Ingurumen ondorioen azterlana aurkeztu zituen. Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 31.1 artikulua ezarritakoaren arabera, Udalez gaindiko Proiektu Sektorialei Ingurumen ebaluazio estrategikoa eta Ingurumen ondorioen adierazpena egin behar zaizkie, proiektu sektorial horiek onestearekin batera edo lehenago.

2007ko apirilaren 27an, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aditzera eman zuen espedienteak araudian aurreikusitako eduki guztiak barne zituela behar bezain zehazturik, eta beraz, Ingurumen ondorioen azterlana onartu zen tramitatzeko.

2009ko maiatzaren 18an Nafarroako Gobernuak hartutako Erabakiaren bidez jendaurrean jarri zen Udalez gaindiko Proiektu Sektorialaren espedientea, Ingurumen ondorioen azterlana barnean zuela. Erabaki hori 2009ko 72. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 12an.

Espedientea jendaurrean jartzeko epean proiektuaren aurkako 12 alegazio-idazki aurkeztu zituzten honako hauek: Micaela Cervantes Vizcay andrea; José Ruiz de Gaona jauna eta Pilar Goñi andrea; Juana Rodríguez García andrea; María del Carmen Lazcoz San Martín andrea; Potasas de Subiza, S.A.; eta Uharte, Etxauri, Zabaltza, Eguesibar, Esteribar eta Aranguren Ibarreko Udalek eta Electra Valdizarbek. Eranskinean ingurumen arloko edukiren bat duten bederatzi alegazioak laburtzen dira, gainerako alderdiak UPSren tramitazioari buruzkoak direla kontuan hartuta.

Plan Sektorialaren xedea Arga ibaiaren eta bere adarren ibai parkearen handitzea arautzea da, ondoko ibai eta tarteak kontuan hartuta:

- 1. tarteak: Ultzama ibaia, Ostitzetik Sorauren gaur egungo ibai parkearekin lotu arte.
- 2. tarteak: Arga Garaia, Zubiritik Irotzen gaur egungo ibai parkearekin lotu arte.
- 3. tarteak: Urbi ibaia, Ustarrotzetik Uhartan gaur egungo ibai parkearekin lotu arte.
- 4. tarteak: Sadar ibaia, Zolina/Ezkorizko urmaletik NUPeko Campuseraino.
- 5. tarteak: Elortz ibaia, Dorretik goitiko aldetik Sadar ibaiarekiko elkarguneraino (Nafarroako Unibertsitatearen campusa), Besaire ibaia barne dela Elortz ibaiarekiko elkargunetik Moreako urmaeleraino.
- 6. tarteak: Arga Beherea, Etxarritik Barañainen gaur egungo ibai parkearekin lotu arte.

Ingurumen ondorioen azterlanak sortzen diren eraginak identifikatzen eta baloratzen ditu, eta prebentzio eta zuzenketa neurriak ezartzen. Gainera, Lehengoratzeko Plana eta Ingurumena Zaintzeko Plana ere ezartzen ditu.

Kontuan hartu diren ibaietan jarduteko helburuak eta dagozkien irizpideak funtsezko hiru alderditan zehaztu ahal dira:

-Ibai-inguruaren ingurumen egoera hobetzea. Horretarako, honako hau proposatu da: dagoen landaredia errespetatzea; landaredi naturaleko zerrenda luzetara handitzea eta ibaien erregimena errespetatzea, parkea tartaren batean urak azpian har dezakeela aintzat hartuta.

-Herritarrek erabiltzeko espazio eta ibilbideak gaitzea. Planean hainbat pasealeku eta zidor sortu dira herriguneak elkarren artean lotzeko, horrela mugikortasun iraunkorra bideratuko delakoan. Hori burutzearen ondoriozko eragina murrizteko, pasealeku eta bidexkak lehendik dauden pista edo bideen gainean trazatzen dira, beharrezkoak diren baldintzek horretarako aukera ematen dutenean.

Pasealeku eta zidorren sareak, 2009ko otsailean aurkeztu zen dokumentazioan agertzen denez, guztira 72 km ditu. Horietatik 23 km-k lehendik dauden bideak aprobetxatzen dituzte eta 49 km sortu berriak dira. Bidexka ireki berrietarako, UPSk gehienez 2 metroko zabalera eta zabor-legarrez osatutako zorua proposatzen ditu. UPSn, hasieran, pasealekuak 4 m-ko zabalera izanzen duela aurreikusten da. 10 m-ko integrazio-zerrenda baten barruan egonen da, eta ahal dela, ibaitik urrunen dagoen zerrendan, ibaiko landaredia lehengoratzeko berma uzteko.

Pasealekuaren sarea osatzeko, atsedenerako jostetageak gaitu dira.

-Zuzenketak eta eragin txarren hobekuntza, adibidez etxolek eta eraikinek zortasun gunea okupatzea.

Ingurumen ondorioen azterlanak eraginari buruz egiten duen balorazio orokorra honako hau da: prebentzio eta zuzenketa neurriak eta ingurumena lehengoratzeko plana aplikatu ondoren, Iruñerriko Ibai Parkea handitzea positiboa izan daiteke, alde batetik gizarte eta aisialdiko erabilerak eta bestetik ibai-espazio orokorraren kontserbazio eta hobekuntza bateratzeko.

Ebroko Ur Konfederazioaren txostena agertzen da. 2009ko irailaren 2ko txosten hori aldekoa da, baldintza batzuk ezarrita. Hainbat alderdi adierazten dira, besteak beste aurreikusten diren bide eta

bidexkek nahiz atsedenleku soilek ez dutela modu nabarmenean aldatuko lehendik dagoen erliebea, eta beren eraginez ez dela ukipen esanguratsurik sortuko korronteetan, uholde-erregimenean, urak har dezakeen eremu batean egon arren, betiere korronteek eraman ezin ditzaketen elementuekin ekipatzen badira. Atsedenleku tematikoen zati bat barnean hartu behar duten eraikinei dagokienez, 100 urteko birgertatze-aldia duten uholde-eremuetatik kanpo kokatu beharko dira.

2009ko abenduaren 18an, aurkeztu ziren alegazioei buruz Mankomunitateak egin zuen txostena sartu zen, eta 2010eko urtarrilaren 12an Mankomunitateak UPSaren erregelamenduari buruzko argibideetarako proposamen batzuk prestatu zituen. Proposamen horietan xehetasun batzuk agertzen dira ibai ondoko pasealeku eta zidorraren dimentsioei buruz eta lehendik dauden bideetan egiten diren tarteetan trafiko mota bat baino gehiago batera egoteari buruz.

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak tarte batzuetan ibaia hurbil egotearekin zerikusia duten arazoak identifikatzen ditu. Arazoak sortzen dira, ibai ertzeko ekosistemari gehiegizko mugak jarriko zaizkiolako, baita kalteak ere, agian, uholdeen ondorioz; horregatik, tarte horietan pasealekua ibai-ibilgutik urruntzea proposatzen du. Beste alde batetik, egiaztatzen da beste tarte batzuetan bideak bikoiztea eragotzi behar dela, ibai-paisaiatz gozatzeko helburua lehendik dauden bideak aprobe txatuz berdin lor daitekeelako. Mankomunitateak pasealekuaren zabalerari buruz egin duen azken proposamenari buruz, UPSren hasierako planteamendua hobetzen duela uste du, eta proiektua ingurumenean hobeto integratzeko neurri batzuk proposatzen ditu.

Espedientean dauden txostenak ikusirik eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urriaren 10eko 426/2007 Foru Aginduaren bidez eskuordetutako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. "Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Plana Udalez gaindiko Plan Sektorialari" (UPSri) buruz Ingurumen ondorioen adierazpena -aldekoa- egitea. Plan horrek udal mugape hauek hartzen ditu barnean: Odieta, Olaibar, Ezkabarte, Esteribar, Eguesibar, Uharte, Aranguren, Noain (Elortzibar), Beriain, Galar Zendea, Zizur Zendea, Iruña, Zizur Handia, Barañain, Oltza, Etxauri, Ziritza, Zabaltza, Etxarri eta Bidaurreta.

2. Proiektua baldintza hauek betez garatuko da:

-Lurzoru urbanizaezina zeharkatzen duten tarteetan pasealekuaren gehieneko errodadura-zabalera 2,5 metrokoa izanen Urbi eta Sadar ibaietarako, eta 3 metrokoa gainerakoetarako (Ultzama, Elortz eta Arga). Ibai ertzeko zidorraren zabalera, ahal dela, 1,5 metrokoa izanen da (nolanahi ere, UPSren erregelamenduak definitzen duen bezala, gehienez 2 m-ko zabalera izanen du). Pasealekurako, gainera, lur zapalduzko zerrenda, 0,5 - 1 m zabal, diseinatzen ahalko da. Zerrenda hori belar espezie autoktonoz hornituko da. Lurzoru urbanizaezineko tarteetan, pasealekuaren zoladura zabor-legar naturalezkoa izanen da; zidorrean, sastrakak kenduko dira eta inausketak eginen dira, besterik ez (1,5 metroko zabalera duen trazan), eta lurzoruaren jatorrizko zoladura mantenduko da.

-Urak hartzen ahal dituen guneak edo ibaiaren higadurako tarteak saihesteko (kasu biek pasealekuaren kontserbazioa eragozten ahal dute, eta lehenengo kasuak gainera ibarbasoak lehengoratzeko aukera arriskuan jar dezake), eta ekologiaren ikuspuntutik sentikorrakoak izan

daitezkeen beste gune batzuk ere saihesteko, xehetasun azterlanean pasealeku edo zidorraren trazadurarako baldintza edo aldaketa hauek kontuan hartu beharko dira:

1. tarte, Ultzama ibaia

Goiko tartean (Odietako 9. poligonoko 94. eta 229. lurzatien artean), pasealekuaren ardatza eta ibai bazterra landare-ilara baten bidez bereiztea gomendatzen da, ingurumen-integrazioko gune bat sortu ahal izateko (ahal bada 5 metro zabal, gutxienez).

2. tarte, Arga Garaia

-Urdaitzetik Larrasoañara bitarteko tartean 200 metro inguruko tarte saihestu beharko da (tarte hori urak har dezake, eta ibarbasoa izan daiteke). Horretarako, Esteribarko 18. poligonoko 8. eta 9. lurzatien hegoaldeko ertzetik joanen den pasealekua diseinatu beharko da.

-Lurtxiki izeneko alderdian (Zuriain, Esteribar), P-6 eta P-8 pasabideen artean, pasealekua Done Jakue Bidetik igaroko da, bideak ez bikoizteko (beraz, UPSko P-7 pasabidea eraikitzea ez da beharrezkoa izanen).

-P-9 pasabidetik behera dagoen 350 m inguruko tarte batean pasealekuaren ardatza lekualdatzea gomendatzen da, ingurumen-integrazioko gune bat sortu ahal izateko, horri esker bertan dagoen ibarbasoa handituko baita.

3. tarte, Urbi ibaia

-Pasealekuaren trazadurak ibaiaren eta ur bazterreko landarediaren artean lur zerrenda bat utz dezala gomendatzen da. Lur zerrenda horren zabalera ahal dela gutxienez bost metrokoa izanen da, eta ingurumen integrazioko gunea izanen da.

-UPSn Egues eta Gorraitz artean proposatzen den tartean, nekazaritzako eta turismoko ibilgailuen trafikoa dago. Tarte horren ordez Urbi ibaiaren ibilguaren ondoan trazadura eginen da, Iruñerriko Mankomunitatearen proposamenari jarraikiz, Eguesibarko Udalaren alegazioa kontuan hartuta. Ibiriku eta Egues artean, ingurumenaren ikuspegitik egokiena UPSn proposatzen den ibilbidea dela uste da.

4. tarte, Sadar ibaia

-Pasealekua Taxoareko bidetik igaroko da, ibilguaren paraleloan eskuinaldeko ur-bazterretik, Ekialdeko ingurabidearekiko gurutzagunetik zubi berriraino, Taxoareko industrialdearen ondoan (dena dela, UPSn aurreikusita dagoen bezala Ingurumen-Integrazioko guneak txertatuko dira).

-Zubi berritik (Taxoare) Zolinaraino, pasealekuaren trazadurak, ahal dela, ibaiaren eta ur bazterreko landaredi naturalaren artean lur zerrenda bat utziko du. Lur zerrenda horren zabalera gutxienez bost metrokoa izan dadila gomendatzen da, eta ingurumen integrazioko gunea izanen da.

-UPSn Zolinako urmaeleen proposatzen diren AR-10 eta AR11 jostetaguneak ez dira erabilgarriak hegaztien behaketarako, ur azaletik nahiko urrun daudelako. Helburu hori duen behatoki bat egiten bada, urmaeletik hurbilago kokatu beharko da, eta sarbidea babestu egin beharko da, ezkutatzeko hesi artifizial eta naturalekin, hegaztiei trabarik ez egiteko (leku interesgarria izanen litzateke ekialdeko aldea, dikea amaitzen den lekuan).

5. tarteia, Elortz ibaia

-Pasealekuaren hasiera Done Jakue Bidean egonen da, Zizur Txikira doan errepideko zubiaren parean. Leku horretatik beherago, Elortz ibaiaren eskuinaldean, beste pasealeku bat planteatuta dago jada, Iruñeko Udalak sustaturik. UPS honekin lotura izanen du ("Elortz eta Sadar ibaiak ingurumena lehengoratu eta alderdi hidraulikoa egokitzeko proiektua, 2005eko martxoa").

-Huerta del Moroko meandroko pasealekua lehendik dagoen bidetik igaroko da, ibilguaren paraleloan Elizde izeneko alderdian.

-Galarko hurrengo tarteetan, higadura edo ur bazterreko landaredi eskasa dagoenean, pasealekuaren trazadurak, ahal dela, ibaiaren eta ur bazterreko landarediaren artean lur zerrenda bat utziko du. Lur zerrenda horren zabalera gutxienez bost metrokoa izan dadila gomendatzen da, eta ingurumen integrazioko gunea izanen da. 2. poligonoko 166. eta 167. lurzatiak eta 4. poligonoko 478. eta 485. lurzatiak.

6. tarteia, Arga Beherea

Arga Behereko tarteetan, pasealeku sortu berrian ahal dela distantzia nahikoa utziko da -20 metro inguru gomendatzen da- pasealekuaren eta ibai ibilguaren artean ibarbaso naturala ezartzeko. Hala ere, pasealekutik ibai-ibilgura sartzeko gune batzuk (zidorrak) diseinatzeko ahalik dira, ibaiaren ikuspegiaren osagarri gisa. Ibaiaren higadura duten tarteetan pasealekua 6 metro gutxienez atzera eramanen da, ezpondaren gainaldetik.

-Arga ibaiaren azken tarteia, Bidaurretako udal mugapean: gaur egungo bidea -ibai ibilgutik oso hurbil- ibarbaso bihurtzeko uztea eta pasealekua horren paraleloan, labore artean, diseinatzea aztertuko da.

-Etxarrin, AR-25 jostetagusetik tarte zuzenaren amaierarainoko tarteia, ibaian behera, ezpondaren gainaldetik igaroko da, ur bazterreko landarediari kalterik egin gabe.

-Etxarriko errotaren ondoan dagoen AR-25 jostetagusaren eraginpeko azalera murriztuko da.

-Zabaltzan (La Torna alderdia) ingurumenaren ikuspuntutik egokiagotzat jotzen da meandroaren ibilbidea laburtzea, P28 eta P29 pasabideak ahalik eta modu zuzenean lotzea, lurzatiaren mugetan zehar, eta zuhaitzak landatzeko lur-zerrenda bat diseinatzea. Horrela, 2,33 urteko birgertatze-aldian urak har dezakeen tarteia saihestea lortzen da, eta gainera, bi ibaiertzetan irisgarritasuna murriztea (modu horretan ibaiertzetako bat faunarentzat babesleku izan dadin) eta ibilbide laburragoa sortzea, herrien artean komunikazioa hobetzeko, oinez zein bizikletaz. Pasabideak kokatzeko leku zehatzak erabakitzeak, gune horretako ur etorri arruntak kontuan hartuko dira.

-Etxauriko 2. poligonoko 237. lurzatiatik -lurzati hori barne dela- P-28 pasabideraino, La Torna alderdian, pasealekuak ibarbaso naturaleko lur-zerrenda ezartzeko moduko tarteia utziko du -ahal dela 20 metro inguru-.

-Ibaiko espazio hondatuak birgaitzeari dagokionez, irin fabrika izandakotik Etxauriko igerilekura doan Arga ibaiaren tarteia kontuan hartzea proposatzen da (oso hondatuta dago ibai ibilguaren mugakidea den errepidearen trazaduraren ondorioz, eta bide zortasuneko 5 m-ko gunea autoak aparkatzeko erabiltzearen ondorioz). Ibaiertza bertako landareekin birgaitzeaz gain, aparkaleku bat ibaitik urrunagoko beste guneren batean jartzeko aukera aztertzea proposatzen da.

-Arakil ibaiaren azken tartean dagoen zidorra, oso higatuta dagoena (Orrearte alderdia) 4 metro gutxienez eramanen da atzera, ezpondaren gainaldetik.

-Urak har dezakeen gune batean instalazioak ez bikoizteko, Arakil eta Arga ibaien elkargunean aurreikusitako jostetagusia (AR-22, ezkerreko ibaiertzean) eta pasabidea (P-27) kenduko dira.

-Ibero eta Barañain arteko pasealeku sortu berrian ere ibarbasoa sortu ahal izateko moduko tartea utziko da ibai ibilguraino. Zehazki, pasealekua atzera eramaten saiatuko da, ibaitik urruntzeko, honako tarte hauetan:

- Arazurin (eskuineko ertza) zubi azpiko 12. eta 13. pasabideen artean.
- Arazurin (eskuineko ertza) igerilekutik beherago, Txulapain ibaiaren gaineko pasabideraino (P-24).
- Ororbiatik behera, P-25 pasabideraino.

-Txulapain ibaiaren gaineko pasabidea (P-24) harri-lubeta duen hodia igarotzearen ondorioz hondatuta dagoen tartean kokatuko da, eta gauza bera gomendatzen da Arga ibaiaren gaineko P-25 pasabiderako.

-Ingurumen ondorioen azterlanean (9. eta 10. kapituluak, hurrenez hurren) eta Ingurumena Zaintzeko Planean agertzen diren prebentzio eta zuzenketa neurriak integratuko dira.

-Ibai Parkea handitzean landare exotiko inbaditzaileak kendu egingen dira. Robinia pseudoacacia batik bat badela ikusi da Sadar eta Elortz ibaien tarte batzuetan (Ingurumen ondorioen azterlanaren 9. eta 10. orrialdeak, hurrenez hurren).

-UPSn makaldiak ibarbaso bihurtzea aurreikusita dago, eta hori apurka egingen da. Lehentasuna emanen zaio ibai ibilgutik hurbilen dagoen lur-zerrendako landaredi naturala lehengoratzeari: lur-zerrenda horrek gutxienez 10 m-ko zabalera izan dezala gomendatzen da (5 metro dago ezarrita Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 21eko 3/2007 Foru Legean). Lur-zerrenda horretan, zuhaixkak (bereziki sasiak eta lezka) eta/edo enbor eta adar metak egonez gero, kontuan hartuko da bisoi europarrak eta igarabak ugaltzen egon daitezkeela, eta kasu horretan obren egutegia egokitu egingen da. Zuhaitzak mozteko, aldezturik abisua emanen zaio Oihanak Kudeatzeko Atalari, markajea egin dezan.

-Arga Behereko tartean basa faunaren (pizidoak, basoko saguzarrak,...) bizitokia mantendu edo handitu beharko da. Horregatik, makaldiak eraldatzean, ahal denean errespetatu egingen dira zutik egon arren hilda dauden makalak: halaber, makal batzuen inguruan uztaiak jarriko dira, edo lurzoruan hesolak (snags izenekoak) instalatuko dira. Gainera, kutxa batzuk gaituko dira basoko saguzarren babesleku gisa.

-Ibaiaren mugakideak diren eraikinak (errotak, irin fabrikak, ...) eta zubiak birgaitzean aldezturik teknikari espezialista batek azterketa egin behar du, saguzarrak (bakarka zein koloniak eratuz) dauden ala ez egiaztatzeko, eta animaliei kalterik ez egiteko neurriak hartuko dira.

-Arrain-faunaren migrazioa eta hedadura bideratzeko, Ibai Parkearen Proiektuan arraintzeko eskalak eraistea edo eraikitzea proposatzen da, aurrekontuan dauden aukerak kontuan hartuta, gaur egun erabiltzen ez diren presa hauetan: errotako presa, San Fermin ikastolaren ondoan ($x = 609.355$ eta $Y = 4.738.185$) Zizurren, Soraurengo Electraren presa Ezkabarten ($X = 613650$ eta $Y =$

4747961), eta Etxarriko errotako presa ($x = 596.746$ eta $Y = 4.737.781$). Elortz ibaian kolektoreen gurutzagune batzuk ere oztopo dira faunarentzat, eta horregatik arraintentzako eskala edo pasabideak diseinatu beharko dira. Hona hemen gurutzagune horiek: kolektorea Imarkoainen ($x = 613.934$ eta $Y = 4.732.734$), eta Noainen ($x = 611.003$ eta $Y = 4.734.820$).

-Ingurumen ondorioen azterlanak dioen bezala, ibai parkean ez da farolarik egonen argi-kutsadurarik ez sortzeko, hiriko tarteren batean izan ezik. Hiriko tarte horietan kontuan hartuko da argiek irailaren 17ko 199/2007 Foru Dekretuan ezarrita dagoena (bereziki 3. artikuluari dagokionez) bete behar dutela. Dekretu horren bidez onetsi egin zen Argiteria Gaueko Ingurumena Babestearren Antolatzeari buruzko azaroaren 9ko 10/2005 Foru Legearen Erregelamendua.

-Ibai Parkearen UPStik ateratzen den proiektua Ingurumen Kalitatearen Zerbitzura igorri beharko da, Ingurumen ondorioen adierazpen honetan ezarri diren baldintzak betetzen dituen aztertzeko.

3. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, orok jakin dezan, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

4. Ebazpen hau jakinaraztea Lurraldearen Antolamendu Zerbitzuari, Basozaintzari, alegatzaileei, Iruñerriko Mankomunitateari eta honako Udalei: Odieta, Oiaibar, Ezkabarte, Esteribar, Eguesibar, Uharte, Aranguren, Noain (Elortzibar), Beriain, Galar Zendea, Zizur Zendea, Iruña, Zizur Handia, Barañain, Oltza, Etxauri, Ziritza, Zabaltza, Etxarri eta Bidaurreta, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an.-Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia, Andrés Eciolaza Carballo.

ERANSKINA

Alegazioak

1. José Ruiz de Gaona jaunaren eta Pilar Goñi andrearen alegazio-idazkia.

-Edukia:

Beren finkan fruta-arbolak dituzte, Idoiko Larrasoainzar edo Zubizar (Esteribar) izeneko alderdian. Finka horretan pasealekua ibairantz lekualdatzeko eta babeserako harri-lubeta bat eraikitzeko eskatu dute.

-Erantzuna:

UPSren lan-eskalan, ezin da zehaztu alegatzaileen lurzatiak jasanen duen ukipena. Azaldu den alegazioa aztertzen ahalko da obra-proiektuak idazten direnean eta eraginpeko ondasun eta eskubideak jendaurrean agertzen direnean. Hala ere, aurretiaz esan daiteke Ibai Parkearen proiektuan ez dela aurreikusten tarte horretan harri-lubetarik sortzea, horrek ur bazterreko landarediaren gaineko eragina sortuko lukeelako. Beraz, alde horretatik alegazioa ez da onartu.

2. Micaela Cervantes Vizcay andrearen alegazio-idazkia.

-Edukia:

Alegatzen duenez, Aldabarren alderdian, Altzuzako eta Gorraizko udal mugapeen artean, ibai parkeak ibai ibilguarekin alderatuta ahalik eta trazadura paraleloena izan behar du, (bere proposamenaren krokisak erantsi ditu), bere jabetzako lurzatiaren okupazioa murrizteko. Gainera, katastroan aurreikusita ez dauden 2.022 m², finkaren hego-ekialdeko muturrean dagoen meandroan, lurzatiaren okupazio gisa har daitezela eskatu du.

-Erantzuna:

Ingurumenaren ikuspuntutik egokia da pasealekuaren trazadura ibilbide osoan ibai ibilguaren paraleloan eta ibilgu horretatik hurbil ez joatea eta tarte jakin batzuetan urruntzea, horrela ibai-lurraldea landaredi naturalarekin handitzeko espazioak sortuko baitira, UPSn diseinatu den bezala, alderdi horretan meandroak laburtuz.

Adierazi den okupazioari dagokionez, UPSren lan-eskalan ezin da zehaztu alegatzailearen lurzatiak jasanen duen ukipena. Azaldu den alegazioa aztertzen ahalko da obra-proiektuak prestatzen direnean eta eraginpeko ondasun eta eskubideak jendaurrean agertzen direnean.

3. José M.^a Montes Ros jaunaren eta Miguel Iriso Lerga jaunaren alegazio-idazkia, Potasas de Subiza, S.A.ren izenean eta hura ordezkatzuz

-Edukia:

Zolinako urmaela Iruñerriko Ibai Parkeak kentzeko eskatzen dute, erauzketako hondakinen (lokatzen) meatze arloko instalazio horretan diseinatu diren jarduerak (berrerabiltzea, lehengoratztea edo isurketa gehiago egitea) UPSren proposamenekin bateraezinak izaten ahal direlako, eta pertsona gehiago bertara sartu ahal izateak arrisku handiagoa ekarriko lukeelako.

-Erantzuna:

UPSn sartzeak edo ez sartzeak ez ditu aldatuko urmael horren ingurumen ondorioak.

4. Manuel Romero Pardo jaunaren alegazio-idazkia, Aranguren Ibarreko Udalaren ordezkari gisa.

-Edukia:

Zolinako urmaela Iruñerriko Ibai Parkean sartzeko eskatzen du, urmael horren garrantzi ekologikoari buruzko dokumentazioa aurkezten du (urmaelean dauden hegazti-espezieen zerrenda), eta lotura perimetroko lur-zerrendan amaitzea proposatzen du, oinezkoak orokorrean ibai bazterreraino bertaraino heldu ez daitezen (erantsi duen planoaren arabera).

-Erantzuna:

UPSn sartzeak edo ez sartzeak ez ditu aldatuko urmael horren ingurumen ondorioak.

5. José A. Andía jaunaren alegazio-idazkia, Eguesibarko Udalaren ordezkari gisa.

-Edukia:

Azaltzen duenez, Ibai Parkea handitzean kontuan hartu behar da Olazko hirigunearen konexioa baratzeetako bidearen bitartez (450 m), Uhartan Zokoa pasabidearen parean dagoen jostetaguneraino. Beste alde batetik, Ibiriku-Egues eta Egues-Gorraitz arteko bideetatik

proposatzen diren ibilbideak gaitzetsi behar direla alegatzen du, bide horretatik nekazaritzako eta turismoko ibilgailuak igarotzen baitira, eta ibilbide horien ordeztu Urbi ibaiaren ibilguaren ondortik joanen den ibilbidea jartzea, ahal den neurrian Iratiko trenbide zaharraren trazadura aprobetxatuta.

-Erantzuna:

Egokia dirudi Olaztik ibai ondoko pasealekuraino doan tartea, Uhartan Arga ibaiaren paretik doana, proiektuan sartzea.

Egues eta Gorraiz arteko ibilbidean bigarren proposamena zati batean onartuko da. UPSren trazadura aldatuko da eta Urbi ibaiaren ibilguaren bazterretatik joanen den ibilbidea ezarriko. Hala ere, Ibiriku-Egues tartean, ibilgailuen trafikoa txikiagoa denez, ingurumenaren ikuspuntutik (eta bereziki ibarbasoko faunarentzat) egokiagoa da UPSren proposamenari eustea eta lehendik dagoen bidea erabiltzea.

6. Jose Javier Erro Larrea jaunaren alegazio-idazkia, Etxauriko Udalaren ordezkari gisa.

-Edukia:

Zera proposatzen du: zidorraren sarea, ahal dela, lehendik dauden bideetatik igarotzea, eta pasealekua luzatzea Ugalzabaletako bide publikoan zehar, Etxauriko herriguneraino.

-Erantzuna:

Bi proposamenak onartzen dira: zidorraren trazadura aldatzea, lehendik dauden bideak erabiliz gero ingurumen-eragina txikiagoa izanen delako; eta pasealekua lotzea Ugalzabaletako bide publikoan zehar, horrek ingurumen-ukipenik ez dakarrelako eta oinezkoentzat zein txirrindularientzat lotura egiteko aukera hobetuko delako.

7. Alfredo Izco Rezusta jaunaren alegazio-idazkia, Zabaltzako Udalaren ordezkari gisa.

-Edukia:

Mankomunitateari eskatu dio trazadura bere udal mugapetik igaro ez dadila, eta trazadura alternatibo bat bilatzea proposatu du; gainera, adierazi duenez, Udalak lehentasunezko beste helburu batzuk ditu, eta ez dago prest Ibai Parkea egitean eta kudeatzean laguntza ekonomikoa emateko.

-Erantzuna:

Iruñerriko Mankomunitatearen asmoa proiektua bere jardueren eremuaren barnean dauden udalerriekin adostea da, eta arrazoi horregatik bilera batzuk egin dira Zabaltzako Udalarekin, udalerriaren interesetarako egokiena den trazadura prestatzeko. Ingurumen ondorioen adierazpen honen ingurumen-baldintzak kontuan hartuta (6. tartea, Arga Beherea: Zabaltza, La Torna alderdia) arrazoizko mantentze-lana dakarren eta oinez zein bizikletaz herrien artean komunikazioa hobetzen duen trazadura adierazi da. Gero, jasotze topografikoak kontuan hartuta, behin betiko trazadura erabakiko da, proiektuaren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen gaineko eraginak murrizteko.

Udalerriek obraren finantzaketan eta, gero, Parkearen kudeaketan parte ez hartzea planteatzen du Mankomunitateak. Obraren finantzabidea eta lurak erostea, Landa Ingurunearen eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren, Nafarroako Gobernuaren eta Mankomunitatearen beraren kargupean eginen dira.

8. Javier Bastera Bastera jaunaren alegazio-idazkia, Uharteko Udalaren ordezkari gisa.

-Edukia:

Adierazten duenez, 3.2 planoa ("Informazioa. Uholdearen kurba, 3. tarte: Urbi ibaia, 02/02 orrian") falta da.

-Erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Nafarroako ibaien uholde arriskuari buruzko hainbat azterlan egin ditu. UPS honen jarduera eremuaren barnean, eskuragarri daudenak aztertu dira (Arga, Ultzama, Elortz eta Sadar), baina Urbi ibaia ez dago eskuragarri.

9. Francisco Xabier Berruezo Gambarte jaunaren alegazio-idazkia, Electra Valdizarbe enpresako kontseilari delegatua den aldetik.

-Edukia:

Alegatzailearen iritziz, ibai ondoko pasealekuak, ubidearen ondoan egonda, hainbat ukipen sortuko ditu ubide horretan, eraikitzen den bitartean makina astunek ubidearen osotasunaren eta bertako pasabidearen gainean izanen dituzten ondorioengatik. Halaber, pasealekua erabiltzen den bitartean ere ukipenak jasanen ditu, eta bertatik igaroko diren pertsonen kopuruak gora egiten duenez, ubidearen inguruan istripuak gertatzen ahal dira.

Ibai ondoko pasealeku batek ibaiaren ertzetik igaro behar du, ibaiaren natur arloko ezaugarri bereziengatik, eta ez izaera hidrauliko hutseko egitura baten ondotik.

Iruñerriko Ibai Parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko eskatzen du, Etxauriko zentral elektrikoa elikatzen duen ubidearen paraleloan dagoen bidean aurreikusita dagoen trazadurari dagokionez, eta ibaitik hurbil dagoen beste gune batetik igaro dadila eskatzen du.

-Erantzuna:

Ibai Parkea handitzeko diseinuan, alde batetik ibaien ertzetik (kasu honetan Arga eta Arakil) ibiliko den pasealeku baten interesak eta, bestetik, lurzoru pribatuen ukipen eta okupazioak bateratu dira. Kasu honetan, Ibero eta Etxauri herrien arteko bide publiko baten aprobetxamendua lehenetsi da, horri esker herri horiek oso distantzia laburrean lotzen ahalko baitira, inguru naturalean ondoriorik txikiak sortuz.

Mankomunitateak, halaber, jakinarazi du neurri batzuk aurreikusi direla Planaren exekuzioaren ondorioz sortzen ahal diren arazo guztiak konpontzeko, jabeek adierazi dituzten kezkak kontuan hartuta. Neurri horiek eraikuntza proiektuetan ezarriko dira, jabeek alegatu dituzten arriskuak murrizteko. Hona hemen neurriak:

-Ubideko ezpondaren oinarrian atzera eramanda dagoen pasealekua ahalik eta ukipen txikiena egiteko moduan diseinatuko da. Lehendik dagoen landarediaren zati bat kontserbatuz, gaur egungo bidean aurreikusita dagoen pasealekua ubidetik isolatuko da.

-Lehendik dagoen bidea konponduko da, besterik ez. Zoladuraren ezaugarriak mantenduko dira, obrek gaur egungo ubidearen egituraren arriskurik sor ez dezaten.

-Proiektuan zubia indartzea sartuko da, zubi horren gainetik igarotzeko baldintzak hobeak izan daitezen.

-Etorkizuneko pasealekua ubidetik hobeto isolatzeko, tartearen luzera osoan hesia jarriko da, ibai ondoko pasealeku bihurtutako bide publikoaren segurtasuna indartzeko.

Iragarkiaren kodea: F1004386